



18/06/20

Bizkaiko Batzar Nagusietako osoko saioan Emakumeen eta Gizonen arteko Bardintasunerako Foru Araua onetsi da

Bizkaiko Batzar Nagusietako osokoak Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Foru Araua onetsi dau gaur goizean Gernikan. Irispena batzordean onetsitako 98 zuzenketa-eskegaz heldu da Batzarretako azkenengo izapidera. Horreen artean, Batzarretako talde guztien ekarpenak jasoten dira, Talde Popularrarenak izan ezik. Saioa arintzeko eskua altxauta egin diran bozketen emaitzak, Bardintasunari buruzko lehenengo Foru Arauaren inguruan lortutako adostasunaren parte bat erakutsi dau. Araua Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek daukien erabateko gehiengoari esker onetsi da, testuko ia artikuluko guztiek Talde Mistoaren eta Talde Popularraren on ikusia be jaso daben arren. EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeen botoa, barriz, alde batekoa edo bestekoa izan da, artikuluen arabera. Oposizinoak erreserbau dituan ehun zuzenketa-eske baino gehiagoetatik, Foru Gobernua eusten daben taldeek bost transakzionetea lortu dabe – Podemos Bizkaiaren hiru, EH Bilduren bat eta beste bat EH Bildugaz eta Podemos Bizkaiagaz batera–.

60 artikuluko baino gehiagotan egituratuta dagon Emakumeen eta Gizonen Bardintasunerako Foru Araua Teresa Laespada Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako foru diputatuak aurkeztu dau Bizkaiko Batzarretan, eta, “lehen aldiz, foru arauakaz erlazionauta eta lehen aldiz maila politikoan, teknikoan eta sozialean parte hartzeko bardintasun arloko araudi moduan” diseinatu dan tresnea dala esan dau.

Euren ekarpenakaz “Bizkaia bardintsua eta inklusiboa lortzeko baldintzak hobetzea gura dauen Arauzko Proiektua hobetu daben” Batzarretako taldeen “beharra, esfortzua eta jarrera zabala” eskertu ostean, Laespadak adierazo dau horri esker, “politika publiko guztien helburu nagusia emakumeen eta gizonen arteko benetako bardintasun eraginkorra lortzea izateko beharrezkoa dan zeharkakotasun politikoan” jarten dala bardintasuna.

Foru Aldundia, orokorrean, “bere helburuak eta berbea beteteagaitik” zoriondu ostean, Euzko Abertzaleak taldeak partaidetzan oinarritutako izaera azpimarratu gura izan dau, bai Bizkaiko gizartearen aldetik, baita Batzarretako taldeen aldetik be, eta horrek “asmo handiko” Foru Arau “errealistea” ekarri dauela gehitu dau; Begoña Gil Euskal Sozialistak taldeko bozeroaleak be bat egin dau esker on horregaz.

Irene Edesa Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak, bardintasunak hartzen dauen pisua azpimarratu dau, Bizkaiko Foru Aldundiak kudeaketa propioko aurrekontuaren %1 arlo horretara bideratuko dau eta. Horrez gain, bardintasun arloko teknikari adituen kopuruak be gora egingo dau. Ordezkariak azpimarratu dauen beste puntu bat, sensibilizaziorako eta ekintza positiborako politikak aurrera eroateko eta helburuak betearazoteko ardurea izango dauen Erakundearen sorrerea izan da.

Ildo berean, Begoña Gilek adierazo dau Foru Araua “ekidadearen bitartez bardintasuna lortzeko” tresnea dala, eta kontsiderazino bitan oinarrituta sortzen dala: “lehenengoa,

desbardintasuna eta bazterketea ez dirala demokraziagaz bateragarri, eta bigarrena, politika publikoak historiako une bakotxean gizartean indarrean dagozan balioen islada izan behar dabela”.

ALDAKETAK HASIERAKO PROIEKTUAN

Batzarretako taldeek eztabaidan gogoratu arazo daben moduan, Araua aldaketa batzuek heldu da Gernikara, Batzarretako taldeek aurkeztu eta ostean Batzordean eztabaidatu ebezan ia 200 zuzenketa-eskeak dirala eta. Halanda be, eta saio haretan oposizionoko ia talde guztiek euren zuzenketa-eskeak erreserbetako asmoa adierazo eben arren, batzuek akordioak lortu ditue Gobernua eusten daben taldeakaz. Zuzenketa-eske transakzionalen figuraren bitartez, Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek bost akordio lortu ditue EAJ-PNV eta PSE-EE taldeakaz, eta horri esker puntu horreek onetsi egin dira gaurko saioan.

Lehenengoa, eta azpimarragarriena, EH Bilduk, Podemos Bizkaiak, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek alkarren artean lortu daben akordioa izan da, Bardintasunerako Erakundearen esku egongo dan Bizkaiko emakumeen partaidetzarako Kontsejua sortzeko. Bertan erakunde feministek, emakumeen alkarteek eta bardintasuna lortzen lagunduko daben bestelako alkarteek eta erakundeek hartuko dabe parte. Horreekaz guztiakaz partaidetzan oinarritutako prozesua ezarriko da, geroago Batzar Nagusiek onartuko daben araudia osatzeko.

EH Bildugaz beste zuzenketa-eske transakzional bat be adostu da, Irene Edesak azaldu dauen moduan, “ahalduntzearen ikuspegitik biktimei zuzendutako arreta, babes eta laguntza sistema bermatzeko eta indarkeria matxista desagertuarazoteko konpromisoan gizarteak erakutsi behar dauen kontzientzia kritikoa bultzatzeko”.

Azkenik, Podemos Bizkaia taldeagaz gaur lortu diran akordioen artean, emakumeen eta gizonen arteko Bardintasunerako Lurralde mailako Sarearen helburu barriak sartzea dago, horreen artean, metodologiak, datu eta informazio baseak estandar eta adierazle komunakaz erabilteko aukerea bultzatzea; eta baita kirol arloko akordio bat be, zaugarritasun berezia daukien emakumeak kirol jardunbidera hurbiltzeko eta federazioen zuzendaritza taldeetan parekidetasuna bultzatzeko konpromisoa erakutsiz, eta baita amatasuna kirolagaz bateragarri izaten lagunduko daben neurriak sustatzeko be.

OPOSIZINOKO TALDEAK

Oposizionoko taldeek esku-hartzeko izan daben txandan, Eduardo Andrés Talde Popularreko batzarkideak, Enplegu, Gizarteratze eta Bardintasunerako Sailak egin dauen lana autortu arren, araua “atzerapen handiagaz” heldu dala Batzarretara adierazo dau. Halanda be, arauzko testua “bardintasunerako aurrerapausu handia” dala esan dauen arren, bere taldeak aurkeztu dituan hiru zuzenketa-eskeetatik bata be onetsi ez izana kritikau dau.

Modu berean, Arturo Aldecoa Talde Mistoaren ordezkariak Foru Arauaren “ikuspegi erreformatzailea” balioztatu dau, eta gaurko eguna “bardintasunaren aldeko burrukan inflexino puntua” izan dala esan dau.

Kritikoago agertu da Podemos Bizkaia taldeko Neskutz Rodríguez, bere taldearen eretxiz testua “modu nabarmenean ez dala nahikoa eta asmo txikikoa” dala adierazoz. Podemos

Bizkaia taldearen eretziz, “soft law” bat da, alde batetik “ez dauelako ekintza zehatzik planteetan, horreek geroago garatuko ei diran planen menpe itziz, eta ekintzak sustapen eta bultzada parametroetan oinarrituta definiduz, berme eta eskubide parametroetan oinarrituta definidu beharrean”. Horrez gain, “ez dau betetearen inguruko behar besteko bermerik emoten”, esan dau.

Arantza Urkaregi EH Bilduko ordezkariak esan dau araua moltso moduan botau ez dan arren, bere taldearen jarrera “abstentzino kritikoa” izango dala. Bere eretziz testua “beharrezko pausua” dan arren, Arantza Urkaregientzat be “ez da nahikoa”, ez ditualako jaso bere eretziz “gutziz beharrezkoak” ziran zuzenketa-eskeak, sailen egitureagaz edo arauaren ebaluazino partekatua bultzatzeagaz erlasionautakoak, beste batzuen artean.

EZ DIRA ONETSI ITAUNETATIK ERATORRITAKO MOZINOAK

Osoko saioak, itaunetatik eratorritako hiru mozinoren eztabaidea eta ondorengo ez onspena be jaso ditu: Podemos Bizkaiaren bi eta EH Bilduren bat.

Lehenengoan, Podemos Bizkaiak eskaria egiten eutsan Bizkaiko Foru Aldundiari, Ekonomia eta Lurralde Garapen Sailak une honetan sinatuta dituan hitzarmen eta akordio guztietan giza eskubideen nazinoarteko esparrua erreferentzia juridiko eta legezko moduan berresteko, eta hemendik aurrera hori holan egiteko. Halanda be, eta Imanol Pradales diputatuak azkenengo Osokoa adierazo ebanagaz bat etorrira, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeetako batzarkideek, gizarte arloko klausulak sartzeari jagokonez Aldundiak aurrera daroan lana gogoratuarazo eta kontrako botoa emon dabe. Podemos Bizkaiaren proposamenak EH Bilduren aldeko botoak baino ez ditu jaso. Talde Popularra eta Talde Mistoak abstenidu egin dira.

Bigarren mozinoan, Podemos Bizkaiak Lurraldeko mobikortasunaren arloan dituan lehentasunak definiduteko eta Bilboko Metroaren 5. linea horreen artean sartzeko eskatu deutso Aldundiari. Oraingo honetan ez dau aldeko botorik lortu. Foru Gobernua eusten daben taldeek eta Talde Popularrak eta Talde Mistoak kontrako botoa emon dabe, eta EH Bildu abstenidu egin da.

Azkenengo mozinoak, EH Bilduk aurkeztutakoak, Bizkaiko Ur Partzuergoek eta Bizkaian partzuergoetatik kanpo dagozan udalerriek osatutako erakundeen arteko beharrerako mahaia sortzea eskatzen eban. Horrez gain, aurrekontuko partida bat Bizkaiko udalerri guztietan saneamendu eta azpiegitura lanetan inbertsinoa bermatzera zuzentzea eskatzen eutsan Foru Aldundiari. Mozino hau be ez da onetsi, bere zuzenketa-eskea onetsi ostean Podemos Bizkaia izan dalako aldeko botoa emon dauen bakarra.

ARRETA GOIZTIARREKO ZERBITZUEN ESKAINTZA OREKATUA

Gaurko ohiko Osokoa Podemos Bizkaiak aurkeztu dauen eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen zuzenketa-eske transakzionala jaso dauen Arauz Besteko Proposamen baten onarpenagaz osatu da, Bizkaiko Lurraldeko eskualde guztietan, banaketa orekatuari eta gertutasunari buruzko erespideakaz bat etorriko dan Arreta Goiztiarreko Zerbitzu eskaintza bultzatzen jarraitzeko.

NOTA DE PRENSA

19/06/18

El pleno de las Juntas Generales de Bizkaia aprueba la Norma Foral de Igualdad de Mujeres y Hombres

El pleno de Juntas Generales de Bizkaia ha aprobado esta mañana, en Gernika, la Norma Foral de Igualdad de Mujeres y Hombres. El dictamen llegaba a este último trámite parlamentario con 98 enmiendas aceptadas en comisión, entre las que se recogen aportaciones de todos los grupos de la Cámara, a excepción del Grupo Popular. El resultado de las votaciones –hechas a mano alzada para agilizar la sesión- ha reflejado parte del consenso alcanzado sobre la primera Norma Foral de Igualdad del Territorio, que ha sido aprobada gracias a la mayoría absoluta de los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, si bien en casi la totalidad de los artículos el texto ha recibido el visto bueno del Grupo Mixto y Grupo Popular. El voto de EH Bildu y Podemos Bizkaia, por su parte, ha estado variando dependiendo el artículo. De las más de un centenar de enmiendas reservadas por la oposición los grupos que sustentan al Gobierno Foral han logrado transaccionar un total de cinco – tres de Podemos Bizkaia, una de EH Bildu y una conjunta con EH Bildu y Podemos Bizkaia-.

El proyecto de Norma Foral de Igualdad de Mujeres y Hombres, que se estructura en más de 60 artículos, ha sido presentado en la Cámara vizcaína por la diputada foral de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, Teresa Laespada, que lo ha calificado como una herramienta que ha sido diseñada “por primera vez en relación a las normas forales y por primera vez en cuanto a normativa de ámbito de igualdad de manera participada a nivel político, técnico y social”.

Tras agradecer el “trabajo, esfuerzo y altura de miras” de los grupos junteros, que con sus aportaciones “han mejorado un Proyecto Normativo que aspira a mejorar las condiciones para una Bizkaia igualitaria e inclusiva”, Laespada ha subrayado que éste sitúa la igualdad “en la transversalidad política necesaria para que el conjunto de políticas públicas tengan como objetivo prioritario la obtención de la igualdad real y efectiva de mujeres y hombres”.

Además de felicitar al conjunto de la Diputación Foral “por cumplir sus objetivos y sus promesas”, el grupo Nacionalistas Vascos ha querido destacar su carácter participativo, tanto por parte de la sociedad vizcaína como por parte de los grupos junteros, lo cual ha logrado dar forma a una Norma Foral “ambiciosa y realista”; un agradecimiento al que también se ha sumado la portavoz del grupo Socialistas Vascos, Begoña Gil.

La representante de Nacionalistas Vascos, Irene Edesa, ha destacado el peso que adquiere la igualdad gracias al 1% del presupuesto de gestión propia que destinará la Diputación Foral de Bizkaia a este ámbito, además del aumento en el personal técnico experto en materia de igualdad. Otro de los puntos resaltados por la representante ha sido la creación del Órgano para la Igualdad encargado de desarrollar las políticas de sensibilización y acción positiva y también el encargado del cumplimiento de los objetivos.

En la misma línea, Begoña Gil, ha manifestado que esta Norma Foral se trata de una herramienta “para conseguir la igualdad a través de la equidad” que nace a partir de dos consideraciones: “La primera es que la desigualdad y la discriminación son incompatibles con la democracia y la segunda es que las políticas públicas tienen que ser el reflejo de los valores vigentes en la sociedad en cada momento histórico”.

La Presidenta de las Juntas Generales, Ana Otadui, una vez ha sido aprobada la Norma Foral ha agradecido la labor desarrollada por los servicios técnicos de la Cámara foral en la tramitación de ésta; asimismo se ha felicitado por el paso dado para una más real igualdad entre mujeres y hombres en Bizkaia.

CAMBIOS EN EL PROYECTO INICIAL

Como han recordado en el debate los grupos junteros, la Norma llega a Gernika con algunas modificaciones, fruto de las casi 200 enmiendas que los grupos junteros presentaron y posteriormente debatieron en Comisión. Sin embargo, y después de que en aquella sesión casi todos los grupos de la oposición manifestaran su intención de reservar sus enmiendas, algunos han logrado alcanzar acuerdos con los grupos que sustentan al Gobierno. A través de la figura de las enmiendas transaccionales, tanto Podemos Bizkaia como EH Bildu han logrado cinco acuerdos con PNV y PSE-EE permitiendo su aprobación en la sesión de hoy.

El primero de ellos y más destacable, es un acuerdo alcanzado conjuntamente por EH Bildu, Podemos Bizkaia, Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos para la creación de un Consejo de Participación de las Mujeres de Bizkaia, adscrito al Órgano para la Igualdad, y donde participarán asociaciones feministas, asociaciones de mujeres y otras entidades y organismos que contribuyan a la consecución de la igualdad. Con ellas se establecerá un proceso participativo para conformar el reglamento que más tarde será aprobado por las Juntas Generales.

También se ha aprobado una segunda enmienda transaccional con EH Bildu para, como ha explicado Irene Edesa, “garantizar un sistema de atención, protección y apoyo a las víctimas desde la perspectiva de empoderamiento, e impulsando la conciencia crítica de la sociedad en el compromiso por la erradicación de la violencia machista”.

Por último, entre los acuerdos alcanzados hoy con Podemos Bizkaia está la inclusión de nuevos objetivos de la Red Territorial para la Igualdad de mujeres y hombres como el de favorecer el uso de metodologías, bases de datos y de información con unos estándares e indicadores comunes; y un acuerdo en materia deportiva en el que se ha adoptado el compromiso de acercar la práctica deportiva a mujeres con especial vulnerabilidad, y el fomento de la paridad en las direcciones de las federaciones, así como la promoción de medidas que favorezcan la compatibilización de la maternidad con el deporte.

GRUPOS DE LA OPOSICIÓN

En el turno de intervenciones de los grupos de la oposición el apoderado del Grupo Popular, Eduardo Andrés, a pesar de reconocer el trabajo realizado por el Departamento de Empleo, Inclusión Social e Igualdad, ha manifestado que la norma llega a la Cámara “con un retraso considerable”. No obstante, aunque ha definido el texto normativo como

“un gran avance para la igualdad”, ha lamentado que ninguna de las tres enmiendas propuestas por su grupo hayan sido incluidas.

De igual manera, el representante del Grupo Mixto Arturo Aldecoa ha puesto en valor el “enfoque reformador” de la Norma Foral y ha definido el día de hoy como “un punto de inflexión en la lucha por la igualdad”.

Más crítica se ha mostrado Neskutz Rodríguez, de Podemos Bizkaia, manifestando que su grupo considera el texto “claramente insuficiente y poco ambicioso”. En opinión de Podemos Bizkaia, ésta se trata de una “soft law” ya que, por un lado “no plantea acciones concretas, supeditando la misma a posteriores planes que se vaya a desarrollar y definiendo las acciones desde parámetros de promoción e impulso y no de garantía de derechos”, y por otro, “no establece garantías de cumplimiento suficientes”.

La representante de EH Bildu Arantza Urkaregi, aunque la Norma no se vota como conjunto ha manifestado que la posición de su grupo será la de “abstención crítica”. A pesar de considerar el texto “un paso necesario”, Arantza Urkaregi lo ha definido también como “insuficiente” al no incluir enmiendas, en su opinión, “fundamentales” en relación a la estructura departamental o al impulso de una evaluación de la norma compartida, entre otros.

OFERTA EQUILIBRADA DE SERVICIOS DE ATENCIÓN TEMPRANA

El Pleno ordinario de hoy se ha completado con la aprobación de forma unánime de una Proposición No de Norma de Podemos Bizkaia, transaccionada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, para seguir impulsando una oferta de Servicios de Atención Temprana que llegue a todas las comarcas del Territorio de Bizkaia.

MOCIONES DE CENSURA RECHAZADAS

La sesión plenaria ha acogido también el debate y posterior rechazo de tres mociones derivadas de interpelación; dos de Podemos Bizkaia y una de EH Bildu.

En la primera Podemos Bizkaia instaba a la Diputación Foral de Bizkaia a revisar que en todos convenios que estén actualmente en vigor en el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial se haya ratificado el marco internacional de derechos humanos como referencia jurídica y legal, y que ésta sea una práctica que se realice en adelante. No obstante, y siguiendo con lo expresado por el Diputado Imanol Pradales en el último Pleno, tanto el apoderado de Nacionalistas Vascos como el de Socialistas Vascos han recordado la labor que la Diputación lleva a cabo en cuanto a la inclusión de cláusulas sociales y han votado en contra. Podemos Bizkaia únicamente ha contado con el apoyo de EH Bildu; tanto Grupo Popular como Grupo Mixto han optado por la abstención.

En la segunda moción, Podemos Bizkaia ha instado a la Diputación a definir las prioridades en el ámbito de movilidad del Territorio y a declarar la Línea 5 de Metro Bilbao como una de ellas. En este caso no ha logrado apoyo alguno. Tanto los grupos que sustentan al Gobierno, como Grupo Popular y Grupo Mixto han votado en contra, mientras que EH Bildu se ha abstenido.

La última moción, esta vez de EH Bildu, instaba a crear una mesa de trabajo interinstitucional, compuesta por los consorcios de aguas de Bizkaia y los municipios no

consorciados de Bizkaia. Además instaba la Diputación Foral a destinar una partida presupuestaria para garantizar la inversión en obras de saneamiento e infraestructuras hídricas en todos los municipios de Bizkaia. Nuevamente esta moción ha sido rechazada al contar solo con el apoyo de Podemos Bizkaia tras aprobar su enmienda.